

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Emeen espermatozoideak eta alderantzizko eboluzioa

PARIS, 1788KO APIRILAREN 16A. Georges Louis Leclerc, Buffoneko kondea hil zen, eta 44 liburu-kiz osatutako *Histoire Naturelle* obra mardula utzi zigun. Matematikari, botanikari, biologo, kosmologo eta idazle frantziarrak naturari buruzko giza eza-guera guztia bildu nahi izan zuen lan horretan. Zalantzarik ez dago obra horretan zenbait ekarpen egin zituela, baina denetan asmatzerik ez dagoenez, hipotesi bitxi mordo ere sartu zuen.

Esaterako, emeek –emakumezkoek barne– espermatozoideak sortzeko ahalmena dugula defendatu eta “frogatu” zuen. Hainbat zientzialari gonbidatu zituen prestatutako demostraziora. Txakur eme bat hil zuen, disezioa egin zion, eta obulute-gietan espermatozoideak topatu zituen. Zientzialarietako batek txakurra araldian zela eta txakur ar batek estali berri zuela esan zionean, Buffoneko kondea ez zen larritu: txakurra estali berria zela onartu zuen, baina espermatozoideek obulute-gietara iristeko askoz denbora gehiago behar dutela erantzun zion.

Eliza katolikoarekin tirabirak izan zituen munda 50.000 urte zituela esaten zuelako –asmatu ez



FRANÇOIS-HUBERT DROUAI

G.L. Leclerc (1707-1788) naturari buruzko jakinduria guztia obra bakarrean biltzen saiatu zen, eta hainbat harribitxi utzi zizkigun.

baino gehiago gizakiaren eboluzio degeneratiboaren teoria berrikusteko eta aintzat hartzeko prest egongo da, egungo egoerari erreparatuta.



arren, Eliza baino gehiago hurbildu zen benetako adinera– eta eboluzioaren teoria defendatzen zuelako, Darwinek argitaratu baino ehun bat urte lehenago ere.

Baina horrek ez du esan nahi Darwini aurreratu zitzaionik. Leclercen espezien eboluzioari buruzko teoria berezia zuen: beheranzko eboluzioa edo eboluzio degeneratiboa esan diezaiokegu. Zenbait espezieetan –ez guztietan– eboluzioa bazela, aldaketak bazirela onartu zuen, baina aldaketa horiek ez zituzten espezieak hobetu, okertu baizik. Hala, astoak zaldi eboluzionatuak (degeneratuak) ziren haren ustez, eta tximinoak, aldiz, gizakien eboluziotik sortu ei ziren.

Garbi dago emeek ez dutela espermatozoiderik sortzen, eta Lurrak 50.000 urte baino askoz gehiago dituela. Baina Buffoneko kondea, izenak izen, bere garaiko zientzialaria zen, hau da, bere garaiko mugekin egin zuen topo. Gainera, bat

Arrastoak

Naturan inoiz neurtu den temperaturarik baxuena



VOSTOK BASE ANTARCTICA

TERMOMETROAK -89 gradu markatu zuen 1983ko uztailean, Antartikako Vostok base errusiarran (argazkian). Baseak 1958tik neurtzen du temperatura eta ez hor, ez munduko beste inongo puntutan ez da sekula halako hotzik jaso. Itsasotik zetorren masa hotz

batek eragin zuen ohiz kanpoko hotza, eta hodeirik ezak sortutako “diamante hauts” fenomenoak areagotu. Adituen arabera, teorian, -96raino ere irits liteke, baina praktikan klima-aldaketak dio ziur aski denbora asko pasako dela 1983ko marka hautsi arte.